

## **Maitasuna besterik ez (Sandrak Meike maite du)**

Marliese Arold

*Itzultzailea: Pello Zabaleta*

2004

Elkarlanean

Gazte-literaturako eleberririk itzuli bat, horixe dugu eskurtean. Gazte-literatura, batetik, edo berriki Patxi Zubizarretari irakurri diogunez, bidegurutzekoa. Zubizarretak berak aitortu digu zein zaila den gazte-literatura idaztea. Azken batean -ongi ulertu badiot, behintzat- gazteen interesa piztuko duen istorioa idaztea da erronka, eta idatzi ere gazteek bere egiteko moduan idaztea, noski. Asko dira, ordea, pentsatzen jarrita, burura datozen zalantzak: gazteen interesa zerk piztuko duen edota heldu batek gazteen-interesa zein den asma ote dezakeen. Eta Marliese Arold-ek asmatu egin du, nire ustez, helburu horiek biek betetzen. Hasiera batean, eleberriko protagonista bien maitasun lesbikoa dela eta, iduri lezake didaktismo edo pedagogismo helburuz idatzitako liburu baten aurrean gaudela. Liburua irakurtzea aski susmo hori uxatzeko. Ze kontatzen zaigun istorioa garaipen baten istorioa baita. Maite dena lortzeko borrokaren emaitza. Maite den hori gizartean oraindik zigortutako harreman-mota izatea borrokaren eragozpen bat gehiago da. Eta hortxe asmatzen du, nik uste, Arold-ek. Ze mezurik izatekotan, maite denaren alde borrokatzeak merezi duela da mezua. Eta mezu hori belaunaldiz-belaunaldi zabaltzen segitu beharrekoa da, nik uste.

Eleberriarren planteamendua, berriz, oso erreala da edo, nahiago bada, mendebaldeko gazteen eguneroko bizitzaren isla, non erraz identifikatuko den Euskal Herriko edozein gazte: gaztetxe bateko arazoak, institutuko giroa, gurasoekiko harremanak, giro urbanoa. Paraleloan doaz gaztetxean prestatzen ari diren antzerki-lana eta Sandra eta Meikereren arteko harremana eta intrigari azkeneraino eusten zaiolarik (lortuko al dute elkarren maitasun-harremanari eustea edota, istorio paraleloan, ongi betetako al dute antzezte egunea egokitu zaien papera?) Amaiera original batek erantzungo die galderoi. Hizkera zuzena, elkarrizketa ugari eta erritmo bizia ditu eleberririk, erraz irensten diren horietakoa. Badu horretan zerikusirik Pello Zabaletaren ahaleginak, ondo kurritzen baitu testuak, itzulpenak traba ez, baina euskara fresko eta naturalean idatzitako testua eskaitzen baitigu emaitza gisa.

Eleberria irakurri duen gazteren baten iritzia beharko genuke hala den egiaztatzeko, baina nire ustez, behintzat, ondo gertutik ezagutzen du Arold-ek gazteen mundua, gazteen arazoak, sentitzeko modua, gauzak adieraztekoa eta, nola ez, errebeldia, inposatutako "normalitatearen" aurkako borroka sana. Eta puntu honetara iritsita eta zalantza bat gehiago gehitzearren esango dut, printzipioz helburu didaktikoak atsegin ez ditudan arren, bizi garen garaiotan (kontsumismo basatia, norberekoikeria...) oso gustura hartzen ditudala –*hartzten direla* nindoan jartzera- honelako eleberriak, nahiz eta nolabaiteko helburu hezitzaile bat izan. Eta areago joanez, gazte-literaturaren inguruan jarduten dugunean, oso emanak izaten gara literatura-hutsa edo delakoa erreibindikatzera, hau da, batere "dirigismorik" gabea. Eta horretan erlaxatu beharra daukagulakoan nago, zeren zein beste alor dugu, literaturaz landa, delako "dirigismo" horretatik salbu? Eta gogoeta tipi honi akabu emateko esango dut "dirigismo" guztiak, gainera, ez direla berdinak. Ez dela berdin, alegia, maitasunaren alde borrokatzera bultzatzea eta nork bere buruaz baino ez pentsatzera bultzatzea.

Oso emaitza polita, beraz, edukiz zein formaz, edozeini –gazte nahiz heldu izan-gomendatzeko modukoa.